

HITZAK OROITUZ

Gela umel eta ilun hartan apenas ikus zitekeen ezer. Hala eta guztiz ere, ahal zuen neurrian, arkatza esku batean hartuta Tomasek bere horretan jarraitzen zuen, etortzen zitzaizkion burutazioak idatzi nahian. Batzuetan idazten ari zela bere eskua dar-dar baten hasten zen eta arkatza eskuetatik erortzen zitzaion. Gorputz osoan zeuzkan zauri eta kolpeek sufrikario handia sortarazten zioten arren, bere burutik pasatzen ari zenari argia eman beharrak bultzatzen zuen bere horretan. "Idazten jarraitu behar dut, idazten jarraitu behar dut" esaten zion bere buruari. Hala ere, zaila egiten zitzaion bizitzan zeuzkan ilusio eta proiektu guztiak plazaraztea eta are zailagoa burutu ezingo zituela bazekienean. Hala ere, bere horretan jarraitu zuen:

"Nire Maria maitea, nire bizitzaren azken momentu hauetan, zu zaitut inspirazio iturri. Ezin ahaztu ditzaket zure alboan pasatutako momento zoragarriak: Lemoako erromerian ezagutu ginenekoa, udan Kontxako hondartzan egiten genituen egun-pasak, Gorbealara lagunekin egiten genituen mendi-irteerak, ... Benetan disfrutatu dudala zure alboan pasatutako momentu bakoitza eta aurrerantzean ere gauza bera desio dizut. Zaindu gure alaba Mirentxu eta izan zaitezte zoriontsu"

Konturatu barik negar malkoek papera bustitzen dute. Emozioak gainezka sentitzen ditu Tomasek eta arnasa falta zaiola konturatzen da. Baina ez da arnasa, faltan zaion gauza bakarra ezta garrantzitsuena ere. Benetan falta duena denbora da, bizitzeko denbora alegia. Hori baina, faxista batzuek lapurtu diote eta ez diote inoiz bueltatuko. 1936ko Azaroaren 2tik 3rako gau hori Legutien bere azkenengo gaua zela bazekien. Aurreko egunetan Legutio berreskuratzeko ahaleginetan ari zen Eusko Gudarien batailoien partaide zen. Bart gauean, bere batailoi taldea nazionalen segada baten erori zen. Gehienak bertan hil zituzten, bera eta beste bost gudari preso hartu zituzten informazioa

ateratzeko helburuarekin. Tomasek torturak eta galdeketa krudelak sufritu zituen:

- "Rojo de mierda, ¿Dónde están el resto de batallones?"
- "¡¡¡No sé!!!"
- "¡¡¡Que no sabes, a ostias te lo voy a sacar, hijo de puta!! ¿Cuántos hombres sois?"

(Isiltasuna,....)

Momentu horretan, soldadu faxistak Tomas fusilarekin kolpatu zuen buruan. Tratamendu honek orduak iraun zituen eta gorputzeko hainbat atal ia senti ezinik utzi zuen.

Bazekien denbora asko ez zitzaiola geratzen, baina bizi-pozarekin amaitu nahi zuen. Bazekien proiektu eta ilusio guztiak bertan-behera geratuko zirela, baina hala ere hauek idatzi beharra sentitzen zuen." Idazten baditut, momentu txiki batean bada ere bizi izango banitu bezala izango da". Ideia honek bultzatzen zuen idazten jarraitzera. Batzuetan, bere negar malkoek etetzen zuten bere idazkera, beste batzutan berarekin preso zeuden gudarien negarrak. Denek zekiten hurrengo goizean bertan fusilatuko zituztela eta tristurak gela ilun hartako iluntasuna sakonagoa bilakatzen zuen.

"Nire alaba Mirentxu. Nire txiki maitea. 1934ko Maiatzaren 5an benetan nintzen gizon zoriontsua. Egun horretan etorri zinen mundura eta zu beso artean edukitzea, bizitzak emandako oparirik hoberena izan da.

Badakit txikia zarela, 2 urte baino ez dituzu eta agian etorkizunean ez zara nitaz oroituko,..."

Momentu honetan, Tomasi arkatza eskuetatik erortzen zaio. Gehien maite duzunak norberaz ez oroitzearen pentsamenduak bere gorputza goitik-behera astintzen du. Minutu batzuk kostatzen zaizkio berriro idazten hastea, baina jarri da berriro ere.

“Nire Mirentxu kuttuna, zenbat aldiz hartuko zaitut besoetan eta muxu eman. Laster eskolara hasi beharko zara eta zihur nago lagun asko egingo dituzula. Nagusiagoa zarenean, San Inazioetan Gorbealara eramango zaitut eta zihur haserretuko zarela, esanez:

-Aita nekatuta nago, aita ezin dut!!,... ta nik sorbalda gainean hartu eta gorako bideari ekingo diogu.

Bukatzeko gauza bat eskatu nahi dizut: zaindu zure ama eta izan zaitezte zoriontsu.”

Goizeko zazpiak dira soldadu nazionalak presoak kamioi batean sartzen dituztenean. Hamar minutu pasa dira, kamioia bere helmugara heltzen denean.

-“Bajar hijos de puta”, soldadu nazional baten hitzak entzuten dira.

Hotza da nagusi Azaroaren 3ko egun hartan Legution. Herri kanpoaldera eramandako gudariak lerro batean jarri zituzten.

-¡Apunten! ¡Carguen! ¡¡Fuego!!

1936ko Azaroaren 3an sei gudari fusilatu zituzten Legution. Horien artean, Tomas Etxebarria Garcia, Lemoako biztanlea. 30 urte zituen eta historia irakaslea zen.

Bere ahotsa egun horretan isildu zuten, bere hitzek ordea oraindik bizirik diraute. 2013ko Otsailaren 10ean Legutio kanpoaldean jende multzoa bildu da. Bertan Aranzadi zientzia elkarte ari da, gerra zibilean fusilatutako hainbat gudarien gorpuak berreskuratzen. Bertan daude baita gudari horien hainbat senitarteko. Horietariko baten izena, Miren.

Aranzadi zientzia elkartekoek gudarien gorpuak ez ezik, beste hainbat objektu berreskuratzen dituzte. Horien artean : arkatz bat eta zimurtutako orri txiki bat.